

Arrasate

P R E S S

1997ko
ekainak 13
367. zenb.

1997

1998

1999

2000

Informatizatutako sistema gehienek, ez dute 2000. urtea ezagutzeko ahalmenik. Denboran atzera egitea nahi ez bada, milioika kode aldatu beharko dira 1999ko abenduaren 31a baino lehen.



...bertan jaustea da!

**Tentaldia gainditzeko
modu bakarra...**




Iturriotz, 33 • ARRASATE • Tel.: 77 07 41



egizabal

**Oinetakoak
eta poltsak**

Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.



Ferrerias, 9 • ARRASATE
79 66 01

Bidekurutzeta, 13 • BERGARA
76 12 28

Bego dragoi, Kanarietaraino!

Urrin samar daude gure herriko festarik ezagun eta gozatuena, bai pasatu direlako edo baita oraindik hilabeteren batzuk itxaron behar ditugulako ere: Maritxu Kajoi eta Santamasak. Auzoetakoetan izango da aipatu hauek beste gozatu duenik, jakina. Eta, egia esan, zer galdu zaigu, bada, San Juan jaietan?



Xabier Letona

Ezer ere ez, eta hala ere topa liteke zerbait -edo asko gura izanez gero-. Tanborrada eta beste ekitaldi zehatzen bat kenduta, nik akorduan dudanez behintzat, San Juanek ez dira jendetsuak izan Arrasaten. Makal kontuak eta kuadriletako mugimenduak egon izan direnean, ordea, jaiak bizi gura izan dutenendako aukera

“Taldea indartsu bat jai guran dagoenean, herrian jai giroa zabaltzen da”

ederrak zabaltzen dira, eta talde indartsu bat jai guran dagoenean, herrian jai giroa zabaltzen da.

Ez, ez du merezi jai jendetsuen ahaleginak, orain arte behintzat beti egin baita porrot horretan (sasoiak, eta Arrasateko egoerak horrela erakusten du). Jendea gura duena, izango du nora joan, baina

gehientsuenok dakigu -esperientziatik abiatuta- jende ugari ez dela ondo pasatzearen sinonimo. Eta, noski, jaiak ez direla gazteenak bakarrik esan beharrik ere ez dago; adin

bakoitzak bere modura bizi ditu jaiak baina gazteak -eta ez horren gazteak- ohi dira herria festa giroz zipiztintzen dutenak.

Honen txuletak tartean, dragoiaren

izpiritu indartsuaz elikatu zen iaz jende asko, haren indarrak urte osorako hartuz. Igarri dadila indar hori aurtengo San Juanetan ere, ea ahalegin kolektiboaren sinbolo den makala altxatzearena ondo ateratzen den.

Baina norbaitzuk dragoiaren indarra behar badute herriko presoak eta haien familiarrak dira. Murugainetik abiatuta, penintsula osoa eta Afrikako zati bat zeharkatu eta Kanarietatik Zabarte eta Gautxori jaso ditzala. Itzuleran gainerako presoentzat ere izango du lekurik bere bizkar indartsuan. Amorrutik biziz entzun nuen Zabarteri funtzionarioek bakerik ematen ez diotela; begira 17 urte kartzelan izan den Roblesen askatasunaz nola jolasten duten; edo Pedrotxoren bizkar izorratuak eta Enrikeren orkatilaz... Bere bizkarrean ekar ditzala Murupera dragoiak edo kiskali ditzala barrote guztiak. Ikus dezala norberak bera zer den, dragoi bizkar edo barrote.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otarora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubillaga, Maider Egües, Marian Porcal. **Publizitateak:** Kaittin Allende, Nerea Zallo (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxebarria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ibaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gaztaria Saitia, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Kamelio Unibarrren, Fidel Berzabur, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Goio Arana.

367. zenbaki honetan

1997ko ekainaren 13an

Asteko agenda	4/5	Orain eta hemen	10/12	Kulturaren txokoa	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumutxuak	15	Azoka plaza	30/31
Inkesta	7	Asteko gaia	17/19	Denborapasak	33
Euren ikuspuntutik	8	Kirolak jokoan	20/22	Ikusi eta entzun	34

Ikuspegia
Xabier Letona **3**

Euren ikuspuntutik
Jabi Lopez **8**

Hogeita hamar galderatan
Javier Marcos **25**

Aurrez aurre
Arantxa Urkaregi **26/27**

Kulturaren txokoa
Dixebra taldea **29**

Asteko gaia
Milenioaren hutsak **17/19**

Sistema informatiko gehienek ez dute 2000. urtea ezagutzeko ahalmena. Honek suposatzen duena aztertu dugu Jon Egurenekin, Euskadiko Kutzako informatikoarekin.

13

ostirala

■ ZINEA

En el amor y en la guerra. Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ ITURBIDE EGOITZAREN UDAKO EKINTZA

Goizean Parrokoaren hitzaldia. Arratsaldeko 6etan Parrokiako koruaren emanaldia.

■ ARRASATE MUSIKALEKO KONTZERTUA

Ikasturte bukaerako kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan.

■ KONTZERTUA GURE LEKUN

7Ki taldearen kontzertua Gure Leku tabernan gaueko 11etan.

14

larunbata

■ ZINEA

Eddie. Alai zineman arratsaldeko 5etan. *Los demonios de la noche.* Arratsaldeko 7.30etan eta 10etan.

■ KIROLDEGIAN BILERA

Musakolako eta Iturripeko kiroldegietan frontoiak, futbol, tenis eta Squasheko kantzak alokatzeko bilera goizeko 11etan Musakolako kiroldegian.

■ UMEEN TANBORRADA

Arratsaldeko 7etan hasita, herriko kaleetan zehar umeen tanborrada.



15

igandea

■ ZINEA

Eddie. Alai zineman. Arratsaldeko 5etan. *Los Demonios de la noche.* Arratsaldeko 7.30etan eta 10etan.

■ ARABA EUSKARAZ

Oionen ospatuko den Araba Euskarazera joateko AEDK autobusa antolatu du. Irteera goizeko 9etan Garibai geltokitik. Itzulera arratsaldeko 8etan.

■ ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Ibilbidea: Arrasate, Angiozar, Elgeta, Zornotza, Dima, Otxandio, Landa eta Arrasate, guztira 105 kilometro. Irteera goizeko 8etan Monterrondik.

■ ZABOR BILKETA UDALATXEN

Besaide Mendizale elkar-teak zabor bilketa egingo du Udalatxeko Leizean. Arrasateko espeleo taldeak antolatu du goizeko 10etan hasiko den ekintza.

17

asteartea

■ ZINEA

Los demonios de la noche. Alai zineman arratsaldeko 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA MONTERRONEN

Gaia: Nola onartu zure inguruko norbait lesbiana edo gay dela?. Emaleak: Aldarte kolektiboa. Arratsaldeko 7etan Monterronen. Sexualitate bulegoak antolatuta.

■ OSKORRI AND THE PUB IBILTARIA KONTZERTUA

Oskorri and The Pub ibiltaria kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7.30etan. Sarrera 500 pta. helduentzat, umeendako 200 pta. eta gazte txartelarekin 300.

19

osteguna

■ ZINEA

La noche cae sobre Manhattan. Alai zineman arratsaldeko 7etan eta 9.30etan.

■ ALDAIKOEN BILERA

Monterronen 7.30etan. Aldaiko kanposantuan panteoia duten familiartekoen bilera, Udalarekin lortutako akordioaren berri emateko.

■ ZINE KLUBA

Midnight Dancers. Amaia antzokian gaueko 9.30etan.

16

astelehena

■ ZINEA

Los demonios de la noche. Alai zineman arratsaldeko 7etan eta 9.30etan.

ZUBIZARRETA
TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tel.: 79 87 74
ARRASATE

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

■ **AUZOLANDEGIAK MAULEKO EPERRA IKASTOLAN**

Uztailean Southako Eperra ikastolari laguntzeko auzolandegia. Bi txanda izango dira: uztailearen 5tik 12ra eta 12tik 19ra. Informazio gehiago AEDn edo Gazte Bulegoan.

■ **PINTURA ERAKUSKETA**

Ekainaren 19a arte Monterongo pintura ikastaroan dabiltzan ikasleen lanen erakusketa Harresi aretoan. Orduategia: Egutero 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jai egunetan 12etatik 2ak arte eta 6etatik 8ak arte.

■ **TORITO BRAVO ANTZERKIA AMAIA ANTZOKIAN**

Ekainaren 20an Txirene taldearen *Torito Bravo* antzezlana Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 800 pta. eta gazte txartelarekin 600 pta.

■ **ASTURIASKO DURO FELGUERAKO LANGILEEN ALDE KONTZERTUA**

La Polla, Dixebra,

Koma, Latzen eta Pi LT taldeen kontzertua Musakolako kiroldegian ekainaren 20an gaueko 10etan. Sarrera aurrez erosita 1.000 pta. eta egunean bertan 1.200 pta. Sarrerak salgai Jai Zalen, Bionan eta CD Manian.

■ **ARGAZKI LEHIAKETA**

Gaiak: Langabezia, lan munduaren prekarizazioa eta etxebizitzaren arazoa. Gazte guztiek har dezakete parte nahi beste argazki bidaliz. Argazkiak edozein tamainakoak izan daitezke eta gaitzizen edo lema batekin izenpetutako sobre itxi batean bidali beharko dira Gazte Bulegora (Biteri etorbidea, 3) edota Hitza eta Ekintzako lokalera (Azoka kalea, 1). Lanak uztailearen 11a baino lehen bidali.

■ **IKASTARO BEREZIA AEKn**

Arrasateko Erdu-AEK euskaltegiak eskaintza berezia antolatuta du uztaile-rako. Lehenengo mailako ikastaroa arratsaldez. Informazio gehiagorako deitu 77 03 69 zenbakira.

■ **AMNISTIAREN ALDEKO TABERNA**

San Juan jaiak direla eta, ekainaren 20an Amnistiaren aldeko taberna zabalduko da. Txandak bete behar dira eta jendea behar dute. Horretarako Etxerat tabernan zerrenda jarriko da nahi duten kuadrilek edo erakundeek izena eman dezaten.

■ **MUSAKOLAKO IGERILEKUA**

Ekainaren 14an kanpoko igerilekua zabalduko da eta barrukoa itxi. Orduategia goizeko 9.30etatik 8.30ak arte. instalakuntzen orduategia: astelehenetik ostiralera arte goizeko 8.30etatik 9.30etara; larunbatetan eta igandetan goizeko 8.30etatik arratsaldeko 8.30ak arte.

1500 = SARRERA + KOPA + OPARIA



MAGNA
dancing club
Jarraitu
Argia

EKAINAK **AZERI**
21 **KALEA 7**
ARRASATE

ASIER	MATRAKA (NA)
IMANOL	KEOPS-INTERMUSIC (S.S.)
BORJA	RYDER (EIBAR)
GORROTXA	RYDER (EIBAR)
HAITZ	MONDRA (S.S.)
ARBOL	PK2 (BERMEO)
JERAR	DES VIO (BI)
JUAN	DES VIO (BI)
EMILIO	CONJUNTO VACIO (BI)
MANU	CLUB 34 ONDARROA (BI)
ALFON & JAVI	MAGNA RESIDENTS DJ'S.

ALAIN SHOW TRANSFORMER
PERFORMANCE - GOIZALDERARTE IRIKITA
STAND, GO-GO'AK, OPARIK



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

BIRIBIL

**Edari eta tabakotan
espezialistak**

Zarugalde, 35 • Tel.: 79 09 53 • ARRASATE

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 13

- Gaueko 10ak arte: Irizar. Erguin.
- Gauez: Cuellar. Bergara.

Larunbata 14

- Gaueko 10ak arte: Amezua. Santamaina.
- Gauez: Estella. Bergara.

Igandea 15

- Gaueko 10ak arte: Ruiz. Maala.
- Gauez: Estella. Bergara.

Astelehena 16

- Gaueko 10ak arte: Morales. San Andres.

Asteartea 17

- Gaueko 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Asteazkena 18

- Gaueko 10ak arte: Español. Iturriotz.

Osteguna 19

- Gaueko 10ak arte: Corcuera. Musakola.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

- Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
- Igualatorria 79 05 00
- Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
- (emakumeak) 79 44 11
- Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze Gorria

- Bergara 76 55 76

DYA

- Antzuola 78 71 57

Anbulatorioak

- Arrasate (Larrialdiak). 79 13 57
 - Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
 - Espezialitateak 77 05 78
- 77 12 64
- Oñati 78 08 52
- Eskoriatza 79 98 58
- Aretxabaleta 79 74 58
- Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak

- Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa

- Oñati 78 04 11
- Bergara 76 14 69
- Arrasate 79 14 39
- Aretxabaleta 79 10 52
- Eskoriatza 088

Ertzaintza

- Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak

- Udal taldea 79 09 00
- Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
- Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

- Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
- Elektrizitatea (Iberduero) 12 01 62
- Gasak 900 40 05 23
- 79 78 44
- 79 76 78

Garraioak

- Taxiak 79 12 22
- PESA. 79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak

- Iturbide Egoitza 79 72 11
- Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa

- KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia

- Monterron 77 01 05

Irratia

- Arrasate Irratia 79 58 77

GAZTE-TXOKOETAKOAK, GAZTETXEARI

Gazte-txokoetako gazteok Gjadanik bi kontzertu antolatu ditugu zuekin batera Gaztetxean. Bi kontzertu hauek aurrera eramateko zuen eta bi Gazte-txokoetako partaideen elkarlana eman da. Azken finean, bi gazte talde ezberdin hauetako gazteok gai izan gara helburu bateratu bat lortzeko: bi kontzertu hauek antolatu.

Gazte-txokoetako hartu dugu inizatiba eta Gazte-txokoekin ezinbesteko laguntzarekin gure proposamena aurrera atera ahal izan dugu.

Kontzertuak oso onak izan dira eta guri esateko gelditzen zaigun gauza bakarra eskerrak ematea da.

Besterik gabe, "esker onez agurtzen gara"... baina argi ibili, gustora egin dugu lan zuekin eta... buel-

tan gatoz! badakizue... gazteak, beti gazte!

Eider eta Erru, Txatxilipurdiko Gazte Dinamizatzaileak

UDALPEREN 50. URTEURRENA

Udalpe elkartearen 50. Urteurreneko ekintzen ospakizunak direla eta, antolakuntza batzordeko antolatutako ekintzen balorazio oso positiboa egin dugu, baita bazkideek eta herritarrek orokorrean eskaini diguten laguntzarena. Lerro hauen bidez bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu laguntza eskaini diguten enpresei, babesleei eta udalari, euren lana barik ezin izango genukeen eta hain programa osotua eskaini.

Era berean argitaratu genuen aldizkariak harrera ona izan du, eta oraindik batzuzk salgai daudenez, erosi

nahi duen edonork Udalpeko Zuzendaritza Batzordekideren bati eskatzea besterik ez dauka.

Eli Alzola, Zuzendaritza Batzordearen izenean

AINARARI

Hitzei soinua eman ezinka, eta begirada noraezean gal-duta, bizitzari gogoz ekingo diogu gaurtik, eta betikoz!

zurre eskutik emanda goazelako, zurre irrifarraren aztarnei jarraitu beharra besterik ez dugulako. Bide berriak eraikiz goaz, zoriontasunari aurpegia erakutsiz, Ainara, laztana, gugan zaudelako.

Zure lagunak

ARRASATE KOMUNIKABIDEAKek PROIEKTU BERRI BAT AURRERA ERAMATEKO GESTORE BAT BEHAR DU

BALDINTZAK

- Diplomata edo lizentziatua izatea (Enpresa zientzietan, Kazetaritzan...)
- Komertzial edo eta proiektuen gestioan esperientzia.
- Euskara maila ona.
- Gidatzeko karneta eta autoa.

BALORATUKO DENA

- Deba Garaian bizitzea.
- Harremanetarako gaitasuna edukitzea

ESKAINTZEN DENA

- Hileko 175.000 pta gordinak, negoziagarriak.

KURRIKULUMAK

- Epea: 97-06-22.a
- Helbidea: Otorara Lizentziatua, 31 20.500 ARRASATE
- Tfnoa: 79 02 26
- Faxe: 77 09 40




Memesa
79 42 22

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioak
Offseta
Ferrerías, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

Baduzu ordenagailurik etxean?



Juan Carlos Zubia
Langilea
(48 urte)

Ez, baina erosteko asmoa bai, batez ere semearentzat. Nik ez dakit asko erabiltzen, baina erosten dudanean ikasiko dut.



Nati Hernandez
Langilea
(37 urte)

Bi ditut, bata alabak erabiltzen du eta bestea senarrak. Aspaldi erosi genuen baina nik neuk ez dut erabiltzen. Egia esateko ez zait gehiegi gustatzen.




Manu Remon
Ikaslea
(21 urte)

Bai, ikasteko eta jolas egiteko erabiltzen dut. Duela urte térdi erosi nuen.



Yolanda Madinabeitia
Langilea
(21 urte)

Ez, eta ez dut uste erosi-ko dudanik. Ikastaro baten ize-
na eman eta oinarriko erabilpena ikasi nuen, baina ez ditut ondo ezagutzen ordenagailuak.



Ander Arkauz
Langilea
(32 urte)

Ez, eta erosteko asmorik ere ez daukat. Gainera erabiltzen ez dakidanez ez dit inolako enbidiarik ematen.



Virginia Amor
Langilea
(32 urte)

Ez, baina badaukat erosteko asmoa. Erabiltzen bada-
kit hainbat ikastarotan ibili naizelako. Etxean ondo etor daiteke ordenagailua gauza askotarako.



Juanito Barberan
Langilea
(38 urte)

Ez, eta oraingoz etxean ez dut erosiko lehentasunen artean ez daukadalako. Lanean ordenagailuarekin ibiltzen naiz, beraz badakit erabiltzen.



Isidora Hernandez
Etxekoandrea
(54 urte)

Ez daukat eta ez dut erosiko. Semeak behar zuten, baina ezkondu egin denez berak erosiko du.



HAURTOKO
Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE



TOKION
ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 79 91 64 • ARRASATE

IBARRA
Garajea S.L.



Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ARRASATE
HOTELA



Biteri, 1 Tel.: 79 14 16
ARRASATE

USTEAK USTE

Beste urte betez festa Zaldibarren

Aurtengo Zaldibarren ko futbito txapelketaren irabazlearen izena ezagutuko da bihar arratsaldean. Ez noa baten edo bestearen aldeko hautaketa jokoan sartzeraz, inporta ere ez zaidalako gehiegi inporta. Irabazten dutenak pozik gainezka azalduko dira, seguru; galtzen dutenak, berriz, triste antzean. Ez litzateke horrela izan behar, niretako denak dira eta irabazle, baita lehen fasetik aurrera egitea lortu ez zutenek.

Dena den, Zaldibarren badago galtzaileen zerrenda bat, argitaratzeko modukoa. Honako hauek osatzen dute: 1) Txapelketa jokatzeko hasi bai, baina irabazteko aukerarik ez zutela ikusita bertan behera utzi zutenek. 2) Parrandaren aitzakiaz, goizeko partidura agertu ez zirenak. 3) Partidu batean bai eta hurrengoan ere bai, istilu eragile izan direnak. 4) Jokatu bai, baina arbitratu egin ez dutenek....

Kontuak kontu, bihar festa Zaldibarren. Irabazi edo galdu, elkarrekin umore onez ospatu dezatela talde biek, antolatzaileek, arbitroek, eta arpegi galanta erakutsiz horrelakoetara agertzeko ohitura dutenek.

Beñardo Kortabarria



Arrasateko gazteriari

Jabi Lopez

Duela zenbait urte Arrasateko kuadrila kopuru handia biltzen zen, herrian sorturiko girok ederenetarikoari aurre egiteko, eta usadio zahar hura zoritxarrez galdu egin zaigu urte batetik bestera. Hori dela eta, Arrasateko kuadrilen batzordearen nahia eta asmoa izan da gazteria San Juanetako ekintzetan barneratzea, kalean gabiltzan kuadrilak herriko jaietan ondo pasatu eta jueragan ibiltzearekin batera gustoko ditugun ekintzak antolatzea. Jakin badakigu San Juanak azterketa sasoi izaten dela eta jende askok ere oporretan irtetzen duela baina bertan geratzen garen gazteontzat umore onean primeran ibiltzeko aukerak behar ditugu.

Iaz kuadrila pare baten laguntza medio arrakasta txi-

kia lortu bagenuen ere, aurtengo giro ederra lortzeko egingizun horretan murgildu diren kuadrila kopurua garrantzitsuagoa dugu. Astelehen aste- AEDn elkartutara gara ideia berriak plazaratu eta eztabaidatzeko, eta bide batez, geure bileretara jende gehiago erakartzeko. Beste elkar- te eta talde batzurekin batera San Juan jai batzordean ere parte hartu dugu jai egitarauari

“Giro ederra lortzeko egingizunean murgildu diren kuadrila kopuruak gora egin du”

haize freskoa eta gaztea emateko. Bilera horien emaitza laster esku artean izango duzue, baina hona hemen aurrerapen bat: San Juan bezperan Makala Musakolarekin dugun mugatik plazaraino ekarri eta altxatuko dugu. Ondoren indarrak berrizteko gazta, ogia eta kalimotxoak. 24ean eta 25ean gosari bikaina prestatu dugu, Maritxuri eskaintza ganoraz egiteko txokolatea eta bizkotxoak. Eta San Juan hirugarrenetarako, Kuadrilen egunerako, Kuadrilen arteko Olinpiada mundialak; eta nola ez, gaue- rako, asto-sorpresa. Datorren urterako ere ideia berriak jaso eta eztabaidatzen hasi gara dagoeneko, baina erronkarik nagusiena Kuadrilen Eguna indartzea da. Asko garen arren, asko egiteko daukagu oraindik baina hala ere jende gaztearen faltan aurkitzen gara. Mugi zaitetz, ziur gaude zure kuadrilan ere parte hartzeko desiatzen zaudetela. Zure zain gaude. Anima zaitetz.

Jabi Lopez, San Juanetako kuadrila batzordearen izenean.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
 Iturriz, 9 • ARRASATE
 Tel.: 79 81 82

GORKA
 ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tel.: 77 13 78

HIES EKIMENA
 Astelehen, astearte eta ostiral
 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

astea bi hitzetan

■ **Mendeurreneko ospakizunak hasi**

Arantzazuko santutegian eman zitzaien hasiera Aita Menni eta San Juan de Dios ospitaleetako mendeurrenaren ospakizunei. Joan den ostegunean hurbildu ziren bertara ospitaleetako arduradunak, inguruko herrietako alkateak, Jose Maria Setien Donostiako gotzaia, eta Iñaki Azkuna Osasun sailburua.

Lehendabizi meza entzun, eta ondoren ekitaldi ofiziala hasi zen.

■ **Arrasatearra Udalatxan hil**

Astelehen arratsaldean hilda aurkitu zuten Udalatxan Juan Luis Garai. 33 urteko arrasatearra Udala auzoko Bieskoa baserriko semea zen, eta goizeko hamarretan

Udalatxera abiatu zen txakurrarekin ardiaren bila. Arratsaldeko hiruretan txakurra bakarrik bueltatu zen baserriera eta familiartekoak larrizten hasi ziren. SOS Deiakera deitu ostean Ertzaintza eta familiartekoak Juan Luisen bila hasi ziren, eta arratsaldeko seiretan gorpua aurkitu zuten. Helikopteroz ateratu zuten 60 metrotik jausi eta buru-hezurra hautsi zuen arrasatearraren gorpua.

■ **Laburmetraiaren aurkezpena**

Joan den astean "Laugarren galeriatik" izeneko laburmetraia estreinatu zen Arrasaten. Ostegunean 40 lagun hurbildu ziren Monterronea laburmetraia ikustera, eta ostiralean 50. Orokorrean ikusleei inpresio ona egin zuten laburmetriak.

Asteleheneko Gobernu Batzordean, bestalde, laburmetraia finantzatzeko 100.000 pezetako dirulaguntza ematea onartu zuen Udalak. Guztira gutxi gorabehera 400.000 pezeta kostatu da laburmetraia egitea.

■ **Chiapasi buruzko hitzaldia**

Luis Condearenak eta Rodolfo Izalek Chiapasi buruz berba egin zuten asteazkenean. Luis Condearena Chiapaseko komunitate indigena batean egon zen bizi izaten, eta orain bertako egoerari buruzko liburu bat idatzi du. Rodolfo Izal Chiapaseko parrokia batean egon zen lanean, Mexikoko gobernuak kanporatu zuen arte. Chiapasko indigenek bizi duten egoera zein tamalgaria den azaldu zuten biek.



Gure mundua eta EHUKoa erabat bananduta egon dira. Ez dugu konexiorik, ez fisikorik eta ezta logikorik ere. Ikasketa planetan gu beti apur bat heterodoxoak izan gara, gauzak aldatzeko ezin diogulako dekretu bati itxaron. Azkenean, norberak nahi duena egiteko autonomia apur bat behar da.

(...)

Hezkuntza monolitikoa ez da ona inorentzat. Zentzugabekoa ematen du konpetentziaz eta desleialtasunaz berba egitea gure unibertsitatea 3.000 ikaslerentzat pentsatua dagoenean eta EHUan 60.000 daudenean. Gainera, ikasle batek toki batean 100.000 pezeta ordaindu behar dituenean, eta beste batean 400.000...

(...)

Gainontzeko unibertsitate pribatuek baino merkeago jarriko ditugu prezioak, barne-finantzaketa konpromezuak ditugulako etengabeko formakuntza alorrean. Ez dugu esaten formakuntzaren koste osoa ikasleen gainean geratuko denik".

IGNACIO LAKUNZA

El Correo
1997-6-9



UDALAKO ARTETA BASERRIA ERRE

Igande arratsaldean sua piztu zen Udala auzoko Arteta baserrian. Ez dago ziur ganbaran hasi zen sua zeren eraginez piztu zen, baina baliteke kortozirkuito bategatik edo beroagatik izatea. Suaren ondorioz ganbara eta korta kiskali ziren, eta erre ez zen zatia ere oso kaltetuta geratu da.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETAK

KJ ERGOLINE 20 markako solarium profesionala salgai, egoera onean, lokalaren erreformagatik.
Tel.: 79 72 56

SOLARIUMa SALGAI!

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

Udal Plenoa

PSE-EEK zinegotzi berria aukeratu behar

Esther Fernandezek, PSE-EEKo zinegotziak, kargua utziko du gaurko plenon.



Osasun arazoengatik erabaki du Fernandezek kargua uztea.

Urtarrilean hartu zuen kargua Estherrek, Rafi Romerok ere zinegotzi izateari utzi zionean. Beraz, hilabete gutxi iraun du karguan Fernandezek. Orain, hirugarren aldi ordezko zinegotzia izendatu beharko du alderdi sozialistak. Bestalde, lehenengo aldiz zinegotzien aulkian jarriko da Jabier Nafarrate, EAko zinegotzi berria.

Emakumeei gaurko plenora joateko deia luzatu zaie

Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzeko egin den plangintza gaurko plenon aztertuko dela eta, emakumeei plenora joateko deia luzatu die Emakumearen Batzordeak.

Alderdi politikoei ekintza positiborako plangintza aurrera eramateko konpromezua hartzea eskatuko zaie, eta dagoeneko HBren, EBren eta EAJren oniritzia du. Gai nontzeko alderdiek ere plana ezagutzen dutela eta, arazo barik onartuko dela espero da.

Planean, datozen lau urtetan eman beharreko pausak aipatzen dira. Esaterako, emakumeendako txoko bat antolatzea proposatzen da; toki horretan ikastaroak, hitzaldiak eta beste ekintza batzuk antolatuko lirarteke. Bes-


tetik, gaztetatik sexismoa baztertzeke, eskola garaian hezikidetzeta saioak aurrera eramatea aurreikusten da.

Emakumearen Batzorde-

aren ustez, emakumearen egoera hobetzeaz gain gizonezkoen bizi kalitatean ere abantailak ekarriko ditu planak.



Gaur arratsaldeko 7etan hasiko da plenoa.



MIKEL LASA, S.A.

aseguru artekaritza

ASEGURU OROKORREN AGENTZIA

Zure familiaren segurtasuna, aurpegia erakusten ez dizun norbaiten esku utziko zenuke?

EZ ERABAKI ZURE ETORKIZUNA TELEFONOZ

BANKINTEER

A G E N T E A

FINANTZA PRODUKTUAK

Inbertsio fondoak, Altxor Letrak, Epe jakinerako ezarpenak, Bonoak, Obligazioak eta abar.

HIPOTEKA MAILEGUAK

Maalako Errabala, 33 behea • 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: (943) 79 69 00 Faxa: (943) 77 10 74

Leze-txiki babesteko proiektuari hasiera eman nahi zaio

Leze-txiki aztarnategi inguru babestu barik dagoela eta, itxidura bat eginez kobari segurtasuna eman nahi dio Udalak. Horrez gain, inguru garbitzea eta Leze-txikira doan bidea txukuntzea aurreikusten dira Leze-txikirako proiektuan.

Hala ere, Leze-txiki ondoko lurrek jabea dutenez, inguruko lursailak eskuratzeko pausoak ematen hasia onartuko da plenoan. Jabearekin harremanetan jarri baina akordiorik lortu ez denez, eremu hori espropiatzeko bideari ekin zaio. Espropiazioari badaezpada heldu zaio; litekeena da datozen hilabeteetan jabearekin akordioa lortu eta diru kopuru baten truke lur eremu hori eskuratzeko. Guztira 5.800 m²-ren jabe egin nahi da Udala.



Musakolako A-20 arearen urbanizazioari helduko zaio berriro.

Bestetik A-20 gunean, Musakolan, urbanizazio lanek jarraituko dutela eta, hainbat enpresarekin hitzarmena sinatuko du Udalak. Horren arabera, bigarren faseko urbanizazioa egiteaz eta ordaintzeaz enpresa horiek arduratuko dira. Deza

90, Alejandro Altuna, Gurea Tailerrak eta Excavaciones Besaide dira bide hori aurreratu dutenak. Beste kasuetan Udalak egingo du urbanizazioa, eta ondoren enpresek diru kopuru bat jarri beharko dute kuotaren arabera.

Jaiotzak

- Christian Hernandez Alonso. Apirilaren 25ean.
- Julen Urrutia Garcia. 25ean.
- Oier Sasiain Herrera. 28an.
- Arantza Letona Elizburu. 28an.
- Beñat Arregi Korta. 30ean.
- Pablo Odei Ortiz de Landaluze. Maiatzaren 1ean.
- Ane Cavia Arregi. 4an.
- Miryan Dorotea Ponce. 4an.
- Julen Valle Jimenez. 4an.
- Amaia Telleria Elejoste. 6an.
- Goizeder Victoriana Martinez Armengol. 5ean.
- Josu Egia Iparragirre. 7an.
- Mario Prieto Aguado. 12an.
- Aitor Iraeta Gutierrez. 24an.
- Aitor Uribetxebarria Uribarren. 27an.
- Iزارo Uribarren Uribe. 29an.
- Danel Roa Mora. 31n.

Ezkontzak

- Ricardo Sebastian Roncero eta Maria Jesus Fernandez Rivas. Elizaz. Maiatzaren 3an.
- Zorion Lizundia Egaña eta Elena Beatriz Garai Elizaran. Elizaz. 17an.
- Kepa Larrea Beldarraian eta Izaskun Uribealga Jauregi. Zibilez. 24an.
- Jose Maria Sancho Luque eta Nieves Pardo Abad. Zibilez. 17an.
- Juan Antonio Carrascosa Fernandez eta Maria Pilar Gonzalez Cabrera. Elizaz. 24an.

KIROL ZERBITZUEN ESKAINTZA ARRASATE KIROL PROIEKTUAK

honako kirol zerbitzua bete behar du

- **Arrasateko ikastetxeen kirol eskolarraren koordinazioa**

Informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko:

Musakolako kiroldegian. Tel. 79 04 27

Eskaintzak aurkezteko epea:

1997ko ekainaren 30a.



AZKARATE MORRAS PODOLOGIA KLINIKA

Oin arazoak

Haur podologia

Kirol podologia

Biomekanika arazoak

Gari eta ondo tratamenduak

Plantila zuzentzaileak eta silikona ortesiak

Kiropodiak (gogortasunak, azazkalak, maskurrak)

ORDUA ALDEZ AURRETIK

Uribarri etorbidea, 5 behe • ARRASATE • Tel.: 79 53 63

Inguruko ikastetxeetako 420 ikaslek egin dute selektibitatea Arrasaten

Atzo eta gaur selektibitate azterketa egin dute inguruko ikastetxeetako 420 ikaslek Arrasateko Eskola Politeknikoan. Aurtengoarekin hiru garren urtea da Eskola Politeknikoan selektibitate azterketa egiten dela.

Inguruko ikastetxeei dago-kienez, Almeneko 124 ikasle, Batxilergo Institutuko 46, San Viatorreko 62 eta Eskola Politeknikoko 65 ikasle izan dira unibertsitatera sartzeko azterketa egin dutenak.

Selektibitate azterketa Euskal Herriko Unibertsita-

teak prestatzen du, baina tribunalaren lana izaten da azterketak zaindu eta zuzentzea. Tribunalak ikastetxe publiko-
etako irakasleekin osatuta egoten da, eta gutxi gorabehera 25 lagunek osatzen dute. Gaur egun hiru tribunal desberdin daude, eta hemen Logse batxilergoko tribunalak dago. Ikasketa planen arabera izendatzen da tribunal bat edo bestea.

Selektibitate azterketek emandako emaitzak gutxi gorabehera astebete barru eza-gutuko dira.



Eskola Politeknikoan egin dute azterketa inguruko ikasleek.

Musakolako kiroldegiari buruzko informazioa gehitzea eskatu

Musakolako kiroldegiaren segurtasuna zelakoa den zehazten duen txosten teknikoa egin du Sika enpresak, baina Udalaren ustez txosten horretan jasotzen den informazioa ez da nahikoa. Horregatik, infor-

mazioa gehitzea eskatu zaió aipatutako enpresari.

Astelehenean egingo den gobernu batzordean, bestalde, Udaletxera heldu den txostenak zer esaten duen aztertu-ko da seguruen.

Hitzaldietarako haurtzaindegi zerbitzua antolatzea erabaki

Emakumearen Batzordeak haurtzaindegi zerbitzua eskainiko du irailetik aurrera.

Batzordearen arabera, emakume batzuk jakinarazi diete ez direla hitzaldietara joaten ume zain geratu behar

duelako. Horregatik, Txatxilipurdirekin harremanetan jarri eta zerbitzua antolatzea erabaki da. Hasieran sei saio egingo dira froba modura, eta emaitzaren arabera erabakiko da zerbitzuarekin jarraitu ala ez.

NON DAGO CURRO?

Ez dakigu non, baina eskuartean daukazun ARRASATE PRESSen ezkutatu da. Topatu eta kupoitxoa bete.

Asmatzen duzuenon artean **2 pertsonendako TENERIFERA BIDAIA BAT** zozketatuko da HALCON BIDAIAKEN eskutik.

Zozketa ATBn zuzenean emango da ekainaren 18an MUNDUARI BUELTAKA programan.



367. zenb.

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONOA:

NON DAGO CURRO? ZEIN ORRIALDETAN?

Moztu kupoi hau eta ekarri edo bidali:
ARKO, Otalora Lizentziatua, 31
20.500 Arrasate



oskorri & the pub ibiltaria



Ekainaren 17an, asteartea

Arratsaldeko 7.30etan

Amaia antzokian

Sarrerak: 500 pta. • Gazte-Txartelarekin: 300 pta. • Ume eta partehartzaileak: 200 pta.

Sarrerak aldeztu aurretik salgai: ekainaren 9tik aurrera AEDn
eta Amaia antzokian (Arratsaldeko 6etatik 8ak arte)



ARRASATEKO UDALA

PARTEHARTZAILEAK:
Arrasateko Elkarte eta
Ikastetxeak

ARRASATEKO ERDU-AEK EUSKALTEGIA EUSKARA IKASTAROAK UZTAILEAN

- Maila guztiak. • EGA eta ALFABETATZE • 16 urtetik gorakoendako abentura ikastaroak (espeleologia, eskalada, txalaparta, malabarismoa, e.a) • Iraileko errekeraketak.

Matrikula epea: ekainak 20

INFORMAZIOA ETA MATRIKULA ERDU AEK EUSKALTEGIA

Garibai kalea 14, 3. Tel.: 77 03 69

Beka sistema • Udalaren laguntzaz.



VENTANAS SAN MIGUEL

Iturriotz, 24 ■ Tel.: 79 78 10 ■ ARRASATE
Ibargarai, 24 ■ Tel.: 76 12 21 ■ BERGARA

Zure ongizatea
baresteko gaude



**VENTANAS
SAN MIGUEL**



SALDU OSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUAK.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEA.

BEDOÑATIK KENIARA

Dorleta Gorosabel eta Luis Ugalde Bedoñan ezkondu ziren apirilaren 26an. Bikoteak telebistaz ikusten diren animaliak gertutik ikusi nahi zituen, eta horregatik Keniara joan ziren ezkon bidaian. Zorionak eta urte askotarako!



KATEKISTEN BIDAIA

San Frantzisko Parrokiako katekistek ikasturte bukaerako bidaia egin zuten Santander aldera. Hainbat herri ikusi eta gero Santillana del Mar herrian bazkaldu zuten bapo bapo. Arratsaldean Santanderrera joan eta Udaletxean harrera egin zieten. Gainera hiria ezagutzeko gidari bat ere izan zuten. Zelako pribilegioak!

Rent a Car
 Alkilerreko autoak.
 Eta orain
TRAFIC eta EXPRES
MECA
 Tel.: 79 50 12 / 79 52 12

Igandean sekulako bazkaria egin zen Alkartu elkartean, eta gure argazkilaria bertan izan zen. Itxura denez, Eskarne Uribarrenék ez zuen argazkian atera nahi baina Manuk bizkarretik heldu eta "begiratu txoritxoari" esan zion.

BEGIRATU TXORITXOARI ESKARNE






PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- SOLARIUMA DUTXAREKIN
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

Behinbetiko makilaia (Mikropigmentazioa)



LEHEN



ORAIN

UDAKO
ORDUTEGIA
Goizeko
9.30etatik
arratsaldeko
7.30etara.
Eguerdietan
zabalik!

Berehalako
edertasuna,
emaitza
iraunkorra!

Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎: 79 52 17 ARRASATE

AUZOLANDEGIAK IPARRALDEAN

EPERRA IKASTOLAN (MAULE)

1.txanda: uztailaren 5tik 12ra

2.txanda: uztailaren 12tik 19ra

OSTIKENIA ELKARTEAN (SENPERE)

3.txanda: abuztuaren 4tik 17ra

Goizez lan egin eta arratsaldez Iparraldea ezagutu ezazu.

Izenematea:

- AEDn. Tel.: 77 12 28
- Gazte Bulegoan. Tel.: 77 00 65



Milenioaren hutsak

Nostradamusen iragarpen bat bailitzan, 2000.en urtera arte geratzen den denbora atzeraka kontatu behar da lurralde garatuetan. Ordura arte, lan handia egin beharko dute banketxe, enpresa, telekomunikazio eta gizarte munduko hainbat eta hainbatek datorrenari aurre egiteko. Izan ere, gizarte gero eta informatizatuago honetan, ordena kaosa bihur dezakeen akats txiki bat dute sistema informatiko sakrosantoek.

Astrologoek ehundaka gertakizun iragarri dute 2000. urterako. Izan ere, fetxa majikoaren itxura du. Mendea aldatzeaz gain, bigarren milenioari bukaera emango dion urtea da. Dena den, astrologoen iragarpenak alde batera utzita, fetxa honek emango du buruhausterik. Bere garaian


aurrikusi ez zelako, mende aldaketak informatizatutako esparru guztiak irauliko ditu.

SEI DIGITOEK TRANPA

Mende aldaketa honek, informatizatutako arlo guztietan sortuko duen arazoa azaltzea erraza den moduan, ekarriko dituen ondorioak aurrikustea gatxa da.

Arazoa edozein errezibok, fakturak edo prozedurak erabiltzen duen fetxan sortzen da. Ordenagailuek sei digito erabiltzen dituzte fetxak gordetzeko: urtearen azken bi digitoak, hileen biak eta beste bi eguna adierazteko. Prozesu informatikoetan, ordenagailuak kopuruaren arabera identifikatzen ditu urteak. 96a, 97a baino txikiagoa denez,

lehenagoko fetxa dela ulertzen du. 2000. urteak bi zero ditu, beraz, 00a 99a baino txikiagoa denez, lehenagoko edo data zahar moduan prozesatuko du ordenagailuak. Sei digito irakurtzeko programatuta dauden ordenagailu guztiek, tamalez gehienek, ez dute mende aldaketa ulertuko. Hau dela eta, 2000. urtean egin beharreko transakzio denak,



Jon Eguren Euskadiko Kutzako informatikoak lan talde batekin batera aldatuko ditu sistema informatikoak.

ariketa zaharrak bezala ulertuko ditu ordenagailuak. Prozesu asko, prestamo baten likidazioa adibidez, gaizki atera daitezke.

Mende aldaketa ez ulertzeak beraz, izugarrizko nahastea ekarriko du informatizatutako sistema guztietara. Aparatu elektronikoak, sare informatikoak, telekomunikazioak, ospitalak, hegazkinen nabigazio sistema automatikoak, uraren eta gasaren kontadoreak, ordenagailu pertsonalak, kutxazainak, erlojuak, etxeko bideoak edota chip ala ordenadore txikiak dituzten autoak, denak, kaltetuta ikusiko dira. Beti ere, sei digito ulertzeko kodifikatuta baldin badaude.

ARAZOAREN KONPONBIDEA

2000. urtearen irakurtezintasuna konpontzea erraza da. Urtearen azkeneko bi digitoak (zoritarreko bi zero horiek) erabili beharrean, urtearen zenbaki edo digito denak ipintzea besterik ez dago. Fetxak orduan zortzi digitoz osatuta egongo dira, adibidez gaurko eguna 1997-06-13 izango litzateke, eta ordenagailuak ez luke inolako arazorik izango 2000. urtea eta ondorengoak besteengandik bereizteko.

Programa eta sistema informatikoak zortzi digito-


tako koderia moldatzea oso erraza da. Benetako arazoa, aldaketa txiki horrek suposatzen duen lan kopuruaren dago. Hasteko, aldaketak non eta zenbat tokitan egin behar diren jakin behar da. Normalean programa zahar guztiak moldatu egin beharko dira, egin ziren momentuan 2.000. urtea oso urrun ikusten zelako.

Enpresa batek dituen programa, baliabide informatiko edo fitxero guztien arabera, lana ikaragarria izan daiteke.

EUSKADIKO KUTXA LANEAN BURUBELARRI

Sei digitoetako programen egileek bazekiten ordenagailuek ez zutela 2000. urtea eza-gutzeko ahalmenik. Hala ere, norberak oso urruti ikusten du hemendik bost, hamar edo, are gehiago, hogeitatera gertatuko dena. Jon Eguren, Euskadiko Kutxako Informatikako Departamentuan egiten du lan eta berak ere horrela aitortzen du. "Orain 16 urte hasi nintzen Euskadiko Kutxan lanean. Orduan ere, ezagutzen zen sei digitoek ekarriko zuten arazoa, baina 2000. urtean zer gertatuko ote zen ez zuen inork planteiatzen. Orduan hamasei urte geratzen ziren oraindik, orain hiru eskas besterik ez".

Hurrengo mendean sartzeko denbora gutxi geratzen




Enpresetara buruhauste ugari ekar dezake mende aldaketak aurrez beharrezko neur...

denean, kode guztiak aldatzen dabilta enpresa handi eta txiki guztiak. "Derrigorrez egin behar den lana da - esaten du Egurenek - gure kasuan abiapuntu ona dugula uste dugu. Orain dela zazpi urte ordenadore zentrala aldatu egin

genuen eta sistema informatikoa zentralizatu. Aplikazioak berrituz behar izan genuenez, prozesu biak aprobetxatu genituen zortzi digitoak sartzeko". Dena den, banku baten egon daitezkeen programak eta artxiboak

■ Ordenagailuek sei digito erabiltzen dituzte fetxa gordetzeko. Urtearen azken bi digitoak, hileen biak eta bes-

te bi eguna adierazteko. Prozesu informatikoetan, ordenagailuak kopuruaren arabera identifikatzen ditu urteak.



ez badira hartzen.

zenbaezinak gerta daitezke. "Tresna batzuen bidez, norainoko lana dugun jakin dezakegu. Jaso ditugun lehenengo datuen arabera, sistemen %25a aldatu beharko dugu gutxi gorabehera".

Horrela esanda, ez du lan

handiegirik ematen baina programen kopurua kontuan hartuta, ez da txantxetarako gauza. "Euskadiko Kutxako ordenadore zentralak bakarrik 10.000 programa ditu. Horiek guztiak aztertu behar dira banan banan, gehi kutzazain auto-

matikoetako programak, bule-goetako PCak, informatika sare guztiak..." Oraindik ez dakite zenbat kostatuko zaien sistema informatikoen konponketa. Bertako langileak dira lana egingo dutenak, sistema gehienak etxekoak direlako eta behar izanez gero, subkontratetara joko da. Azterketa egin ondoren, lanaren planifikazioa egingo da. Euskadiko Kutxakoek, joandako urtarrilean hasi ziren azterketa egiten eta 99ko uda baino lehen prozesu osoa bukatzea espero dute.

KATASTROFISMORIK EZ

"Prensak eta aldizkari espezializatuak, 2.000. urteko arazoaren ikuspegi katastrofista eman dute -komentatzen du Jon Egurenek-. Arazoa hor dago eta sekula ez da ahaztu behar. Hala ere, alarmista izan dira kasu askotan, aldaketak garaiz egiteko denborarik ez duela emango, programadore espezializatuak ez direla enpresa guztietarako egongo, eta horrelakoak esaten. Enpresa baten egoeratik bestera, kristoren aldea egon daiteke. Batzuk sekulako lana izango dute eta beste batzuk ez. Dena den, lan plangintza on batekin ez dut uste ezer gertatuko denik. Are gutxiago enpresaren bat horregatik pikutara joango denik".

Enpresa txikiak dira arazo gehien izango dutenak Egurenen ustetan. "Normalean, ez dituzte programak eguneratzen. Hamar-hamabost urteko programak direnean, programadorea bilatzea oso zaila izaten da. Enpresan erabiltzen den sistema ezagutzea oso garrantzitsua izango da, non eta zer aldatu behar den jakin ahal izateko".

ERAGIN OROKORRA

Eguneroko bizitzan informatikaren aplikazioak abiadura ikaragarrian zabaldu dira. Lan munduan ezezik, erabiltzen diren tresna askok sistema informatikoak erabiltzen dituzte. Tresnen funtzionamendua fetxen erabilpenean oinarrituta badago, posible da aldaketak egin behar izatea. "2000. urteko arazoa oso zabala eta dibertsoa da. Banketxeetan badakigu zelako eragina izango duen; industrian beste era batera emango da; baina, eguneroko bizitzan, autoetan, etxeko ordenagailuetan, ospitaletan, supermerkatuetan, ez dakigu zenbaterainoko eragina izango duen. Argi dagoena zera da, fetxak erabiltzen diren arlo guztietan aztertu behar direla sistemak."

Marian Porcel

96a, 97a baino txikiagoa denez, lehenagoko fetxa dela ulertzen du. 2.000. urteak bi zero ditu, beraz, 00a 99a baino

txikiagoa denez, data zahar moduan prozesatuko du ordenagailuak, eta ez du mende aldaketa ulertuko.



Final erditan Betrayer eta Cerveceria Leintz taldekoak finalerako txartel barik geratu ziren. Biak talde onak izan arren, zapatuan eta domekan ez zuten zortirik izan. Finala beraz Orlando Piratasek eta Sortu Informatikak jokatuko dute. Talde bietan Mondran eta UDAn ibilitako jokalarik asko dago. Lehia ziurtaturik egongo da baina nora joango da trofeoa? Arrasaten geldituko da edo Aretxabaletako bidea hartuko du? Zalantza zapatuan argituko zaigu.

Arrasatearrak eta atxabaltarrak finalean

Laburrak

■ JOKALARI NABARMENAK

Urtero moduan Zaldibar txapelketako jokalarik nabarmenenek trofeoa jasoko dute. Antolatzaileen iritziz aurten hauek izan dira jokalarik onenak: Edu Santiago (Fosforos), Jesus Jara (Naranja Mekanika), Gorka Madinabeitia (Insert Coin), Juan Luis Agirre (Galartza Kontenedoreak), Juan Luis (Sokoakoak) eta Xabier Arabaolaza (Sortu Informatika).

■ AFARIA

Zapatu gauean finalera heldu diren taldeek, antolatzaileek eta epaileek afaria izango dute Sara Merenderuen. Menua ondorengoa: Entremesak, rapea amerikar erara, txuletak, pastela, kafea eta purua. Edateko ardoa eta txanpaina ugari.

■ GOLIGOL

Arratsaldeko 3.30etan hasiko da 14 urtetik beherako neska-mutilentzat antolatu duten ekintza berezia. Zaldibarko ate batean puntuazio desberdina jarriko da, gazteek toki zehatz batetik baloia jaurti beharko dute eta puntu gehien lortzen duenarentzat Athletic eta Real taldeetako jokalarien sinaduradaramaten baloia banatuko dira. Bost laguneko taldeak osatuko dira eta gazte guztiak zaudete gonbidatuta.

Hurrengoak

FINALAK

Ekainak 14, Larunbata
Zaldibar

4.00 Cerv. Leintz eta Betrayer (3.-4. postuak)
5.00 Sortu Informatika - Orlando Piratas (Finala)

Emaitzak

Sortu Informatika 5 - Cerveceria Leintz 4
Orlando Piratas 5 - Betrayer 2

Nesken txapelketa

Nesken futbito txapelketako finalak jokatu dira zapatuan. Goizeko 11etan 3. eta 4. postuak egongo dira jokoan Zaldibarren. Eguerdiko 12etan berriz, lehena eta bigarrena. Partiduak bukatuta sari banaketa egingo da Zaldibarren bertan.



Aldi bi

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Uribe auzoko txapelketa

SAILKAPENA

A taldea

1- Amuebladora Zarautz	18
2- Jako al Rey	17
3- Flujos Secos	15
4- Niva Vin	14
5- Balon Rojo	10
6- Babjana Sexy	10
7- Astoen Bila	10
8- Ford Publicop	6
9- Pajax De Amsterdam	6
10- DZV	4
11- Sambuka Porretas	0

B taldea

1- Mucho Morro	16
2- Gallinero	16
3- Argi Plastic	16
4- Munar Fool	14
5- Rotor de Bolbogrado	14
6- Elisabeth	12
7- Blind	10
8- Sartuixokfuerte	4
9- Ale Alee	3
10- Manchester Fumaited	3
11- Astonia	2

D taldea

1- Nuevo Taberna	19
2- Los Invalidos	18
3- Mendizabal Oki	14
4- DKB	12
5- Doble Cero	11
6- Molokai	9
7- Ainarexia	8
8- Makai	8
9- Alai Gozokiak	8
10- AT Barbate	3
11- Piernodoiuna	0

E taldea

1- Borroc'n Roll	16
2- Dribling	16
3- Ke Oxtias	14
4- Bortxitxak	14
5- Lautherbrunen	12
6- Ganbelas	11
7- Viboras	10
8- La, mosca Gao	9
9- Girondis De Borregos	4
10- Auri - 2	0
11- The Pepe Wolsw	0

EMAITZAK

A taldea

Ford Publicop 9 - DZV 6
Pajax de Amst. 7 - Sambuka Porretas 4
Balon Rojo 0 - Niva Vin 8
Astoen Villa 5 - Jako alrey 11
Flujos Secos 2 - Babjana Sexy 1

B taldea

Ale Alee 2 - Argi Plastic 5
Manch. Fumaited 0 - Mucho Morro 1
Gallinero 3 - Rotor de Bolbogrado 4
Blind 4 - Munar Fool 5
Elisabeth 5 - Astonia 4

D taldea

Nuevo Taberna 3 - Doble Cero 1
Los Invalidos 8 - Makai 1
Alai Gozokiak 1 - AT Barbate 0
Piernodoiuna 1 - DKB 3
Mendizabal 4 - Molokai 2

E taldea

Ke Oxtias 4 - Borrock'n Roll 2
Bortxitxak 1 - The Pere Wolsvagen 0

Dribling 7 - Gerandis de Borregos 3
Lautherbrunen 8 - Auri 2
Viboras 3 - Ganbelas 7

F Taldea

Equs BTR 5 - Decima Victima 9
Ojo Avisore 6 - Komando Alpagat 11
Los Innombrables 1 - Sob. de Txeira 3
Leya 8 - SGK 0
666 3 - Hirei 5

F taldea

1- Hirei	16
2- Komando Alpagat	16
3- Leya	15
4- Equs BTR	11
5- Decima victima	11
6- No hay mus	10
7- Los Innombrables	9
8- Ojo Avisore	8
9- Sobresosis de Txeira	6
10- 666	4
11- SGK	0

FINAL ZORTZIRENAK

Iturripe A

9.00	Nuevo taberna - Jako al Rey
10.00	Hirei - Ke Oxtias
11.00	Leya - Dribling
12.00	Komando Alpagat - Niva Vin
13.00	Mucho MORro - Flujos Secos
14.00	Lso Invalidos - Gallinero

Iturripe B

13.00	Borrock'n Roll - Mendizabal Oki
14.00	Amueb Zarautz - Argi Plastic



ARRASATE
KIROLAK

Zaldibar Lehiaketa Mondrasport-en

Bi pertsonendako Arrasate Kirolak emandako lote bana zozketatuko da txapelketako talde irabazleen izena asmatzen dutenen artean.

Zaldibar txapelketarako finalera heldu diren taldeak:

ORLANDO PIRATAS eta SORTU INFORMATIKA

Zozketa ekainaren 16an (astelehena) Mondrasport saioan egingo da.

Txartelak bidaltzeko azken eguna ekainak 16 (astelehena).

Txartelak ARKOra ekarri (Otalora Lizentziatua, 31).



TXAPELDUNAREN IZENA:

TXAPELDUN-ORDEAREN IZENA:

Izen-abizenak

Telefonoa:

Maratoilaria

ENRIKE KABIKETA

“Atletismoa osasuna izateko eta erretzeari uzteko baliogarria zait”

— **Beteranoetan Estatuko eta Euskadiko txapelduna.**

— Horrela da, Bilbon egin zen txapelketan denbora onena lortu eta titulu biekin etorri nintzen etxera. Iaz ere Estatuko onena izatea lortu nuen eta sasoiari nengoela ikusita, aurtan ez nuen gutxiago espero.

— **Entrenamendu gogorrek egingo zenituen?**

— Bai jakina, astean gutxienez hiru bider goizez eta arratsaldean entrenatu dut. Kilometro asko eta serieak ere egin izan ditut erritmo aldaketak lantzeko. Batez ere errepidean eta mendian ibili naiz, Arrasaten ez dugu eta pista egokirik entrenatzeko.

— **Egindako denborarekin gustora?**

— 2 ordu eta 34 minutu egin nituen. Ez da nire denbora onena. 2 ordu eta 25 minututan dut marka. Lasterketa egunean euri asko eta haitza zebilen eta horren ondorioz, denborak ez ziren onak izan. Niri korrika egiteko eguraldi freskoa gustatzen zait, ez bero-egia ezta hotzegia ere. 11-15 gradu primeran.

— **Zure hurrengo helburua?**

— Datorren zapatuan Euskadiko taldeen arteko txapelketan hartuko dut parte Arrasate Kirolak taldearekin. 10 kilometro martxan egingo ditut. Ez dut sekula martxa egin, baina Arrasaten martxalaririk ez dagoenez ni neu joango naiz.

— **Korrika egiten ez zara aspertzen?**


— Ez horixe!, ezin badut entrenatu txar to pasatzen dut. Korrika egiten 31 urterekin hasi nintzen eta 46 urterekin hor jarraitzen dut. Askok erretzen nuen eta txikiteoan ere nahi baino gehiago ibiltzen nintzenek takarran hastea erabaki nuen.

— **Zer eskaini dizu atletismoak?**

— Gauza asko, baina bat aipatzekotan erretzeari uzteko indarra eta era berean osasuna. Korrika hasi nintzenetik erabat aldatu zait bizitza eta gustorago.

— **Zerbaitegatik kenduko zenuke bibotea?**

— 30 urte daramatzat biboteaz baina kenduko nuke.



Taldeen arteko Euskadiko Atletismo txapelketa

Durangoko pistetan egingo da Taldeen arteko Euskadiko Txapelketa domekan. Arrasate Kirolak taldeko atletek mailari eusteko helburuaz egin beharko dute lehia. Hori lortuta, Fernando Zufiria entrenatzaileak esan duen bezala, nahikoa litzateke, batez ere kontuan hartuta Arrasate dela parte hartzen dutenen artean pistarik ez duen talde bakarra. Domekan goizeko 10etan hasiko den txapelketan ondorengo taldeek hartuko dute parte: Unibertsitatea, Reala, Iruñako, Atletikoa, Barakaldo, Errenderia, Goiherri, Ederki eta Arrasate Kirolak. Herriko ordezkariak ez dira 3.000 metrotan izango, Jose Ramon Petreñas lesionatu egin delako. Beste baja bat Manu Anguas izango da, honek bi probetan hartu behar zuen parte 400 metro eta 4X400 errelebo proban, eta bere ordezkariak Martin Davila eta Fernando Nogales joango dira.

Igerilarien probak

Herriko igerilariak hainbat proba izango dute asteburu honetan. Zapatuan Eibarko San Juan txapelketan hartuko dute parte. Infantil mailako Euskadiko txapelketara Amaia Rodriguez joango da. Santurtzin egingo den txapelketan Amaiak bular estiloko 100 eta 200 metrotan egin beharko du lehia. Igerilari honek proba horretako partaide izateko gutxieneko denborak lortuta ditu. Aletarekin ibiltzen direnek berriz, Hueskan dute zita.

A N T Z E R K I A



Ideia
Aitor Mazo

Dramaturgia
Patxo Telleria

Musika
Jaume Sisa

Zuzendaritza
Lander Iglesias

AKTOREAK
Aitor Mazo
Patxo Telleria

Ekainak 20, OSTIRALA

Amaia antzokian

Gaueko 22.30etan

SARRERA: 800 pta. (Gazte-Txartelarekin 600 pta.)

Torito Bravo



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ARRASATEKO UDALA

McKinley (Alaska) 6.194 metro.


**Garraio
urgenteari
buruz mila
gauza
harrigarri
kontatzeko
baditugu ere,
NACEXen
nahiago dugu
kontatu barik
erakustea.**

**NACEX:
dena ondo
joan behar
denean.**

**Zorionak
Josu, Mikel
eta Roman.**

NACEX, McKinley espedizioa 1.997ko maiatza

**DOKUMENTU
ETA PAKETEEN
GARRAIO AZKARRA**



**GRUPO
RT2
TRANSPORTES**


900 100 000
Informazio Orokorra

Bizkaia Etorbidea, 16 behea
20.500 ARRASATE
79 92 77

<http://www.nacex.com>
Email: nacex@nacex.com

Javier Marcos

T.U.-LANKIDE ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA



Aretxabaletako kazetari honek zazpi urte daramatza MCCK kalera zuzentzen. Ezkonduta dago baina, momentuz behintzat, ez du seme-alabarik.

1. Zein da zure horoskopoa? Capricornio.
2. Sinestuna zara? Bai, badaukat nire Jainkoa.
3. Animalia bihurtzekotan? Arranoa.

4. Zure akats bat/gauza on bat?

Garrantzi handia ez duten gauzei gehiegi ematea. / Agindutakoa betetzen saiatzen naiz.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Esate baterako,

elkarrizketa honek.

6. Amets bat? Euskal Herrirako bakea.

7. Zer kenduko zenuke mundutik?

Berekoikeria, intolerantzia, inbidia eta langabezia.

8. Gertakizun historiko bat? Berlingo harresiaren haustura.

9. Nor miresten duzu? Inor ez.

10. Zer diozu beldurra? Osasun faltari.

11. Zertaz damutzen zara? Elkarrizketa hau egiteaz.

12. Negar egin duzun azken aldia?

"Izpirituen etxea" pelikula ikusi nuenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Nahiko konpleto dagoela uste dut.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan? Etxe handi baten mantenimendu gizona.

16. Arrasateko gustoko toki bat? Monterron.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Arropak erostera joan.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Denei ematen diet errepasoa.

19. Gustoko janari bat? Spagetiak.

20. Liburu on bat? "La pasión de mejorar", Eugenio Ibarzabalena.

21. Filmerik onena/txarrena? Izpirituen etxea / Relic.

22. Musika talderik onena/txarrena? U2 / Ez dakit.

23. Telebistako programarik onena/txarrena? Lo + plus / Lo que necesitas es amor.

24. Egin dizuten oparirik politena? Aitak, 17 urteko Simca 1200a.

25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Kirola egiten, telebista ikusten, irakurtzen, ...

26. Oporretarako toki bat? Panamako Contadora irla.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.

28. Gomendio bat? Bakean denak bakez kutsatzen du dena.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Zerbaitearako balio ezkerro....

30. 200 milioi irabaziz gero? Munduan zehar bidaia egingo nuke.

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA AMNIOZENTESIA ANTISORKUNTZA	MENOPAUSIA BASEKTOMIA BULAR PATOLOGIA
--	---

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

Pavimentos AGR
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

UDAKO Ikastaro Intensiboak

AKADEMIA **BASTIDA**

Araba Etorb., 3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 35 33* - 79 32 16
Fax: 79 06 28
e-mail: bastida@facilnet.es

OINARRIZKO OFIMATIKA
(Multimedia Sistemaren ematen dira)

PROGRAMAZIO INFORMATIKA

INTERNET

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA PYMEetan

GIZA ERREKURTSOEN ADMINISTRAKETA

MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ

INGENIERITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

abuztuan ere prestatzen da

ARANTXA URKAREGI (FEMINISTA ETA UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA)

“Feminismoak berak ere,

Leioan egiten du lan Arantxa Urkaregik, matematika klaseak ematen. Aurrekoarekin zerikusirik ez duen arren, orain gutxi Monterronen egon zen “Aniztasun sexuala”-ren inguruan berba egiten. Emakumeen Asanblada sortu zenetik bertako partaide izan da, eta sexualitatearen arloa feminismoaren bidetik iri-tsi da.

- Aniztasun sexualaren gainean berba egin zenuen Monterronen, zer esanez?

- Gael Rubin idazlearen teoria azaltzen dut. Berak dio sexualitatea zapalkuntza ardatz berezi moduan aztertu behar dugula. Sexu harreman mota ugari dago gizartearen, sexualitatea ez da bakarra, ezta eredu bakarra ere. Gertatzen dena da sexualitate mota desberdinak hierarkia batean sailkatzen direla, piramide gisa. Piramidearen goialdean

onartutako sexualitate mota egongo litzateke, bikote heterosexualak, ezkonduetakoak eta umeak ekartzeko, behar-go egongo liriateke ezkondu-ta ez dauden bikote heterosexualak, oraindik behar-go homosexualak... eta beheko partean onartuta ez dauden praktika sexualak egongo liriateke: prostituta, sadomasokistak, pedofiloak etab.

Berak esaten du, eta ni oso ados nago, piramide hori ez dela bakarrik gizarte mailan planteatzen, norberak bere buruan ere baduela horrelako hierarkia bat. Ematen du norberaren gustokoa ez dena berez txarra dela. Sexualitatea gauza zikin moduan ikusten da gizarte honetan, eta gure-

gan normalean beldurra sortzen du.

- Zer esan nahi duzu? horrelako jarrerak hartzeko gizarteak hezi egiten gaituela?

- Bai. Pertsona berez sexuala da, hezi egiten gaituzte, eta ez bakarrik heterosexualitateari begira. Heziketa horren barruan garrantzi handia du sexualitatearen ikuspuntu zikin horrek, ez da gauza arruntzat hartzen. Suposatzen da sexualitatea kontu pribatua dela, publikoan ezin dena egin... eta hor arauak sortzen dira, guk ikas ditzagun.

- Onartzen ez diren


“Gizarteak ezezik norberak ere hierarkia modura ikusten du sexualitatea. Ematen du norberaren gustokoa ez dena berez txarra dela”

Amaia antzokian sekulako ikuskizuna datorren asteartean

“Oskorri & The Pub Ibiltaria”, zu zeu kantaldiaren protagonista

Oskorri euskal musika talderik produktiboena dela esan daiteke. Orain 25 urte sortu zenetik, kaleratu dituen diskoak, kantak eta eskainitako kontzertuak zenbaezinak dira. Ibilbide luze horretan, irudimen agortezina erakutsi dute. Horren erakusle, sortu berri duen ikuskizuna “Oskorri & The Pub Ibiltaria”. Bilboko taldeak, jendearen partaidetza bultzatuko duen esperientzia berria ipini du martxan. “The Pub Ibiltaria” Oskorriko partaideekin batera kantatu edo edozein instrumentu jotzen duen ikusleek osatzen dute. Oskorri, errepertorio berezi bat pres-tatu du, ikusleak kontzertuetan protagonista bihurtzeko.

Errepertorioan, *Andre Madalen, Gure aitak amari, Ikusi mendizaleak, Edurra teliatuan* edo *Salamanca* bezalako euskal kantak biltzen



dira. Ikasteko errazak eta lagunartean kantatzeko abesti modernoak nahiz betikoak, kalitatezkoak nahiz txarrak, serioak nahiz barregarriak nahasten dira ikuskizunean. Helburua argia: jendearen partaidetza. Musika tresnaren bat

jotzen edo kantatzen dakien edozeinek, bere ahaztutako erakusteko aukera izango du. Euskara ikasleek, hizkera aberasteko aukera izango dute abestien letren bidez.

Arrasaten asteartean izango da “The Pub Ibiltaria”ren

partaide izateko aukera. AEDren eskutik, Oskorri eta bere ikuskizun berri-tzailea ekainaren 17an Amaia antzokian. Dagoeneko, Arrasateko ikas-texe gehienak, Arrasate Musikal, Goikubalu txiki, Trikitixa eskola, Txatxilipurdiren ludoteka eta euskaltegietako ikasleak kantuak prestatzen dabil-tza ikuskizunean parte hartzeko asmoz. Kantuen testuak nahi dituztenentz-at ere, AEDk kopiak banatuko ditu.

Kantuzaleok ez ahaz-tu, Oskorri & The Pub Ibiltariarekin duzue zita, asteartean arratsaldeko 7:30etan Amaia antzokian. Sarreren prezioa 500 pezeta izango da helduendako, 300 Gazte Txartelarekin, eta 200 haur eta elkarteetako parte hartzaile guztientzat. Sarrerak alde zuzenetik eskuratzeko, AEDko lokalera joan.

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Udako ikastaroak eta errekupeazio ikastaroak.

ALEMANA
INGELES
FRANTSES

Eta gainera gure Mediateka zabalik izango duzu, Multimedia materiala, softwarea, eta abar. **DOHAINIK.**

Araba Etorbidea, 4 • ARRASATE
Tel.: 71 20 55

Olakua, 14 • OÑATI
Tel.: 71 60 00

ROTULOS

M2

ERROTULOAK

Tel./Faxa: 76 57 93
B E R G A R A

DIXEBRA TALDEA

“Gogo handia dugu Arrasaten emango dugun kontzerturako”

Datorren ostiralean Duro Felguerako langileen alde kontzertua egingo da Arrasaten, eta jaialdi horretan ezin Asturiasko talderik falta izan. *Dixebra* izeneko rock taldea izango da Asturiasko ordezkaria. *Dixebra* ezaguna den arren, lehenengo aldiz taldearen berri izan duzuenok ostiralean aukera paregabea izango duzue taldeak zelako musika egiten duen ezagutzeko.

- Zeintzuk osatzen duzue *Dixebra*?

- Sei kide gara: Xune abeslaria, Isra bateria, Fernando gaita jolea, Jabi bajua, Primi gitarra eta Fredy perkutsoekin arduratzen dena.

Partaide guztiak, bateria kenduta, Avilesekoak gara. Taldekideon adinari dagokionez, gazteenak 24 urte ditu eta zaharrenak 42.

- *Dixebra*k zer esan nahi du?

- Banaketa eta independentzia. Asturieraz hitz egiten duen pertsona batendako gauza bat beste batetik banatzea esan nahi du. Politikoki ere erabili daiteke, kasu horretan independentzia adieraziz.

- Asturieraz kantatzen duzue.

- Bai, hasieratik. Gu Avilesekoak gara eta hiri horretan 100.000 lagun bizi dira. Horietatik %75 ez da bertan jaiotakoa, eta gainontzeko %25aren gurasoak bertakoak dira. Emigrazioaren eraginez Aviles-en asturiera galdu da, eta horri aurre egiteko asturieraz kantatzen hasi ginen. Asturiasen gaztelania nagusi bada ere, berezko hizkuntza bablea da. Gaztelaniaren

antzekoa denez, poliki berba eginez gero nahiko samur uler daiteke.

- Zein estiloko musika egiten duzue?

- Rock nahiko gogorra baina denetik egiten dugu: rap, reagee, punk, hard-core. Hala ere musika tradizionalaren eragina ere badugu, gaitarekin jotzen dugu eta Asturiasko betiko kantak ere abesten ditugu. Euskal Herrian *Exkixuk* edo *Lin Ton Taunek* egiten duten musikaren antzekoa egiten dugu.

- Zelako kontzertua eskainiko duzue Arrasaten?

- Euskal Herrian emango dugun hirugarren kontzertua izango da. Gogo handia dugu, batez ere kontzertuaren helburua dela eta. Duro Felgueraren aldeko edozein mobidatarako gertu gaude, eta kontzertu horretan egon beharra dugu. Gainera, Duro Felguera-ko langileei eskainitako kantua egin genuen eta abesti hori ere joko dugu.

- Sorpresarik kontzertuan?

- Gure azken lana, Kaki Arkarazok produzitu duena, baliteke Arrasateko kontzertuan estreinatzea.

aste gazte

■ LANA

• Hondarribiko udalak: gizarte langile bat. Epea: ekainak 19.

• Leioako Udalak: igeriketa monitore bat eta klinika laguntzaile bat. Epea: ekainak 20.

• Aretxabaletako Udalak: erdi mailako kirol teknikari bat. Epea: ekainak 22.

■ BEKAK

• HAVE-IVAPek, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolaren lau ikerketa beka deitu ditu. Gaiak: lurralde antolaketa eta hirigintza. Epea: ekainak 26.

■ UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

• Uztailaren 2tik 12ra Baionan eta uztailaren 14tik 26ra Iruñean, 25. udako ikastaroak, gai ugari jorratuko direlarik. EHUK eta UPNAK hautaketa libreko kreditu moduan onartuak dituzte ikastaroak. Matrikula epea: ekainaren 30a arte

■ BARNETEGIAK

• Uda honetan zure euskara barnetegi batean hobetzera animatzen bazara, barnetegien zerrenda, mailak, prezioak ... Informazioa emango dizugu Gazte Bulegoan.

■ LEHIAKETAK

• Eusko Jaurlaritzak, Enpresak sortzeko Gazteendako XII. Ideia Lehiaketa antolatu du. Epea: irailak 19.

• Zumarraga eta Urretxuko udalek, urteroko lehiaketak antolatu dituzte, modalitate desberdinetan: narratiba eta poesiako Iparragirre saria, pintura, komiki, bertso paper eta argazki lehiaketa. Epea: irailak 26.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 77 00 65

“Duro Felguerako langileei eskainitako kantua joko dugu ostiraleko kontzertuan”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Laredon apartamentua salgai. 4. solairuan eta igogailuaz. Prezioa: 6.500.000. Tel.: 76 44 34.

• Erdialdean etxe handia salgai. Tel.: 79 42 13.

• Gesalibar auzoan baserria salgai. Berritua eta egoera onean. Tel.: 79 97 35. Arratsaldez eta gauzez.

• Soraluzen apartamentua salgai. Tel.: 79 50 71.

3. Errentan emateko

• Laredon apartamentua alokatzen da uztailean. Hondartza ondoan dago. Tel.: 79 52 80.

• Torreveijan apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 m.ra. 2 gela, saloia eta jangela. Tel.: 77 03 85.

• Buhardila alokagai Zarautzen, San Juanetatik irailara arte. 6. solairua, igogailuaz. Hondartzatik gertu. Tel.: 79 54 93 eta 13 07 90.

• Zarautzen udan pisua alokatzen da. Alde-zaharrea kokatuta. Tel.: (945) 44 51 14.

• Peñiskolan pisua alokatzen da uztailean eta irailean. Tel.: 79 57 34.

• Udako hileetan Santa Polan (Alicante) bungalow-a eta Torreveijan apartamentua alokatzen dira. Hondartzatik eta herritik gertu. Tel.: 79 32 54 / 79 26 55.

• Etxea alokatzen da San Andresen. Tel.: 79 04 28. Lan orduetan.

4. Errentan hartzeko

• Etxea edo logela bat alokatuko nuke Leintz bailaran. Tel.: 745 41 03 03. Lan orduetan. Amaia.

• Hiru logeladun pisua behar dugu. Tel.: 28 03 16.

• Pisu handi bat behar da 97-98 ikasurterako. (94) 460 86 48. Lan orduetan.

• Pisu txiki bat alokatuko genuke San Andres edo Musakola inguruan. Irailetik aurrera. Tel.: 79 54 46 Goizean. Eider edo Errukane.

• Abuztuan pisua alokatuko nuke Arrasaten edo inguruetan. Tel.: (945) 44 52 24.

• Pisua alokatuko nuke Arrasaten edo Aretxabaletan. Tel.: 79 90 24 / 77 03 30.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

5. Etxe konpartituak

• Aramaion pisua osatzeko lagun bat behar da. Tel.: 77 04 98. Eguerdietan. Irene.

• Datorren kurtsoan pisua konpartitu nahiko nuke Leioan. Tel.: 79 38 13. Leire.

• Lan finkoa duen mutilak logela bat behar du Arrasaten edo inguruetan. Ekaina-uztailetik aurrera. Tel.: 908-57 64 83.

• Emakume heldua behar da igogailua duen pisua osatzeko. San Andresen. Dei egin arratsaldeko Betatik 9etara 77 04 60 telefonora. Margari.

GARAJEAK

7. Saldu

• Zarugalde kalean garaje itxia salgai. Tel.: 79 63 22.

• Garaje itxia salgai Udala plazan. Tel.: 79 97 03.

9. Errentan emateko

• Aldaigainen garajea alokatzen da.

Tel.: 79 51 93.

LOKALAK

12. Saldu

• Lokala saldu edo alokatu egiten da. Ura eta argindarrarekin. Tel.: 79 76 95.

• Komertzioa salgai. Bi jardunekin. Ondo kokatuta eta interesgarria. Prezioa konkretatzeko. Tel.: 77 13 91.

14. Errentan emateko

• Erdiko kaleko 48. zenbakian edozein negozio jartzeko aproposa den lokala alokatzen da. Tel.: 79 18 00.

• Aretxabaletan funtzionamenduan dagoen ileapaindegi mixtoa alokairuan, solariumaz eta edertasun aretoaz. Ondo kokatuta, herri erdian. 60 m². Tel.: 77 12 70 / 79 94 39.

15. Errentan hartzeko

• Rock taldeak lokala alokatu eta konpartitu egingo luke. Tel.: 79 75 90. Oskar.

LANA

17. Eskaintzak

• Bulegotan, dendetan eta etxeko lanetan esperientziadun emakumea goizez lan egiteko prest. Tel.: 76 82 12.

• Neska prest etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 96 10. Maritxu.

• Esperientziadun neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 79 31 44. Gaeuz.

• Andra euskalduna arratsaldetan etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona edadetuak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Esperientziadun emakume euskaldunak pertsona nagusiak zainduke litzuke. Margari. Tel.: 77 04 60.

• Neska gertu aterteak garbitu eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 97 81.

• Neska euskaldunak dendaren baten lan egin edo umeak zainduko litzuke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskaldunak denda baten lan egin edo umeak zainduko litzuke. Tel.: 79 74 76.

• Neska euskalduna umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 58 22.

18. Eskaerak

• Esperientziadun pertsona bat behar da dekorazio denda baten lan egiteko. Tel.: 77 11 48. Denda orduetan.

• Gidatzeko karneta duen pertsona behar dugu ume txiki bat zaintzeko. Tel.: 58 50 40. Maite edo Jabi.

• Ordenadorez lan bat pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 79 93 62. Gaueko 8.30etatik aurrera.

• Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 61 82. Goizezdo gauzez 10etatik aurrera.

• Fruta denda baten lan egiteko neska bat behar dugu. Tel.: 77 01 79.

• Neska gaztea eta esperientziaduna behar dugu jatebete zerbitzurako. Abuztuan eta irailean. Tel.: 77 01 69.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Magisteritza daukan neska batek klase partikularrak emango litzuke. Tel.: 77 10 21. Maite.

• 5. mailako fisikako ikasleak klase partikularrak emango lituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 79 82 42.

• Uztailean OHoko klase partikularrak emango nituzke. Tel.: 79 69 41. Arantxa.

21. Eskerak

• REMeko lehen kurtsuan dabilen ikasle batek uztailean eta abuztuan klase partikularrak behar ditu. Tel.: 79 27 48.

• Uztailean ingeleseko mintza praktika egiteko irakaslea behar dut. Tel.: 77 05 00 / 79 02 11. Kepa.

• Soziologiako 1. mailako estatistikako klase partikularrak hartuko nituzke udan. Presazkoa da. Tel.: 79 38 48.

MOTORRA

23. Saldu

• Kawasaki Vulkan motorra salgai. Tel.: 77 00 62. Arratsaldeko 3tatik aurrera.

• Errepideko aluminiozko bizikleta 55

neurriko salgai. Kuadroa Columby eta Campagnolo osagaiak. Prezioa: 45.000 pta. Tel.: 79 60 85.

• Adria 410 TD karabana salgai. Uda eta negurako guztiz jantzita dago. Tel.: 79 66 09.

• Ford Orion salgai. SS-AF. 87.000 km. Egoera onean. Tel.: 79 96 56. Gaueko 9etatik aurrera. Iban.

DENETARIK

26. Saldu

• Errepideko bizikleta salgai. 55 tailakoa. Columbus Cortine kuadroa, Mavic gurpilak eta Campagnolo piezak. 45.000 pta. Tel.: 79 60 81.

• Collie txakurra salgai. Tel.: 79 08 98 / 71 53 42. Joseba.

• Siberian Husky txakurkumeak salgai. Pedigri bikaina eta prezio ezin hobean. Tel.: 79 59 85.

• Auto karabana salgai. 3,90 m. 5 lagunendako tokia. Merkea. Tel.: 79 91 21. Lanegunetan, gauez.

• Estreinatuta barik dagoen sofa-oheta salgai. 120 zm. Prezio ona. Tel.: 79

14 84.

• Arrazadun behor gazte bat salgai. Tel.: 79 46 75.

• IBM 425 SX ordenagailua prezio onean salgai. Tel.: 79 49 34.

• Erreformagatik solarium profesionala saltzen da. Egoera onean. Tel.: 79 72 56.

• Lur hiztegi enziklopedikoa salgai. Tel.: 79 78 26.

• Kanping karroa salgai. Prezioa: 50.000 pta. Tel.: 77 04 61.

29. Eman

• Komuneko osagarriak emateko prest nago. Tel.: 76 44 34.

31. Galdu

• Erlojua galdu zitzaidan Musakolako jaietan. Zapatu arratsaldean. Radiant markakoa. Tel.: 79 69 69.

• Anbar motako zilarrezko pultsera galdu nuen Musakolako jaietan. Tel.: 79 81 16.

• Urrezko kataia galdu nuen Zaldibar inguruan. Amabirjina baten irudia dauka. Tel.: 77 13 30.

• Ostiralean beturreko graduatu batzuk galdu nituen. Tel.: 79 28 44.

Maiatzaren 28an beturrekoak galdu nituen. Metalikoak dira, gorriak. Tel.: 79 85 25.

• Urrezko belarritako bat galdu nuen Erdialdean. Perla zuritxo bat du. Eskertuko da. Tel.: 79 27 74.

• Asteazken goizean Portaloiko farmazian aterkina aldatu zidaten. Iluna da eta kolorezko orritxoekin. Nik bere aterkina daukat. Tel.: 77 05 65.

• Kotxeko gasolina tapoia eta giltza galdu ditut Meca gasolindegi inguruan. Tel.: 79 80 25.

32. Aurkitu

• Urrezko pultsera bat aurkitu nuen larunbatean Sebero inguruan. Izena eta data jarrita dauka. Udaltzaingora deitu.

33. Denetarik

• Tarok kartak irakurtzen ditut. Tel.: 79 82 55.

DRAGOLJANA 97

S A N J U A N J A I A K


Gaueko 9etatik aurrera herriko plazan izugarrizko afaria.

MENUA

- Kilo-erdiko dragoi-txuleta, piperrekin eta entsaladarekin
- Gazta eta menbriloa
- Kafea
- Taberna zerbitzua

Afarirako txartelak salgai asteburu honetan:

- AED
- AEK
- ORKATZ
- ITURRIOTZ TABERNA
- MONTE TABERNA
- IRATI TABERNA



IKUSKIZUNAK

• Afaria ertaroko garaian girotua egongo da. Zu ere garai horretan murgil zaitezten presta ezazu okasiorako jantzi egokia. Nola? deitu 77 12 28 edo 77 03 69 telefonora. Bertsolariak, berriketariak, musika, malabarrak, arkulariak eta SEKULAKO SORPRESAK!

“Orduko erromerixak dantza suelto eta ardu, haxe zan jaixa sanua oin barriz dana libre dau”

Antolatzaileak: AED, ORKATZ, AEK

Kurtzetxiki


Anporretarren azken ibilbidea

Hau eguraldi edarra, hau! Gaur Anporretarrak Kurtzetxiki mendira fateko asmoz jaiki die.

Etxetik urten eta Zaldibar auzoruntz egin daue. Eskualde-ospitaletik auzoko basarribidea hartu eta bariante azpitik pasatu eta belaxe bide hartu daue. Eskuman geldiketana dan pista batetik sartu dira. Patxadan-patxadana pista jarraituz, ezer be igo barik, Cerrajerako pabeloi guztiak goitik ikusiaz, San Josepeko ur-depositu gainera heldu die. Atsenaldi txiki bat hartu eta Arrasate guztiko panorama ikusi daue.

Segidan ortu batzuetara heldu die, kanterako muturrean daudenak, eta handik gorutz doan pista bat hartu daue.

Patxi izerdia botatzen hasi da, arkazia baso baten alboetik pasatu eta bidea ondion be gorutz doie. Baina segidan ezkerreko pista hartu eta pistaren aldapa moteldu egin jakie. Mendiko harriren muestra batzuk ikusten dittue pistana botata. Probeta hareik mendiko harriaren estudioa egiteko erabiltzen dittue. Udalatzen bezala Kurtzetxikin be tunel bat egiteko asmoa ei dago, bertatik autopista pasatuko ei da eta. Hemen alanbradako pasotik bestaldera egin ostean bedar artean agerketan dan sendatik segitzen daue eta barrero gorutz eskumako bidetik jo daue. Gero, beste itxitura bat aurkitu eta ha ez daue pasauko, hurren-



goa bai, apur bat goratxuau dagoena. Handik tokitik Atxabaltako bidea ikusten da, Mugarri basarria-eta....

Bidetxurrak bedar artetik jarraiketan dau, argindar kable batzuen azpitik pasatu arte. Begi bistan daukien pinudi-

ra sartu eta pista jarraituaz, kurtze txiki bat aurkitu daue. Aritzek esan dau: -benetan txikia da kurutztea eta han bertan dagozen pinuak, barrez, oso handiak die eta zoritxarrez ez duskue paisajea ikusten uzten.

Behin Kurtzetxiki gailurra ezautu eta jakinda katalogatuta dagoen Arrasateko mendi tontor bakarra dala, 504 m. duena, barrero atzerutz jo argindar kableekin topo egin arte eta handik urteten dauen beste bidea pinuditik behera hartu daue. Pinuditik urten eta beste bide bat aurkitu eta eskumarutz hartu daue. Bide kontrari aretxa, artia, leizarra, arantz zuria, eta beste mota batzuetako zuhaitzak (arbolak) ikusi dittue Bedoña auzora heldu orduko.

Haizeak Bedoña ikusi eta aurpegia irribarretsu agertu jako eta sendikoei esan dutzie oin badakixela nundik fan leiken etxera eta ez bakarrik bide batetik, badakixela bitik faten.

Aurten Anporretarrak Arrasateko ingurua ezautu daue eta oin beste inguru batzuk ezauketako gogoia ei daukie eta hartarako uda datorrela-eta aukera edarra izango daue. Anporretarrekin batera zeuen herriko inguruak ezautu badittuzue, animatu zaiteze beste leku batzuk be ezauketan.

Agur beroa Anporretarrei.

“Han bertan dagozan pinuak, barrez, oso handiak die eta zoritxarrez ez duskue paisajea ikusten uzten”

Patxadan taldea

■ Horoskopoa

- **Aries** Zure mutur itsusia ikusi baino hobe begiak ixtea.
- **Taurus** Betaurrekorik ez. Zuk behar duzuna mikroskopioa da.
- **Gemini** Ohitura txarrak bizkorregi hartzen dituzu.
- **Cancer** Zuregatik edozer gauza egingo luke zoro horrek.
- **Leo** Hankaz gora dago zure bizitza. Kontuz ibili!
- **Virgo** Beti txisteak kontaktzen, eta txarrak gainera.
- **Libra** Haurtzaroko traumek ez dizute bizitzen uzten.
- **Scorpio** Argi dago gau erromantikoak gustatzen zaizkizula.
- **Sagittarius** Amodio batzuk ez dira inoiz ahazten, ezta?
- **Capricorn** Kosmikoa zara baina ilargitik jeitsi beharra duzu.
- **Aquarius** Abentura, misterioa eta fantasia maite dituzu baina larregi.
- **Piscis** Zuk zure ikuspegia duzu. Hori bai, guztien desberdina.

■ Gurutzegram

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
		12		13			
14	15		16				17
18		19				20	
21				22			

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Antonio, PPko zinegotzia. 9. Senar-emazteek alabatzat hartzen duena. 10. Arratoia baino txikiagoa den animalia ugaztun karraskaria. 11. Elektrikoki kargaturiko atomoa. 12. (Ald.) Atlantiarreko eta Mediterraniarreko hondo hareatsuetan bizi den arrain mota baten izena. 14. Alfabetoko hamaikagarren letraren izena. 16. Tindatu aditzaren infinitiboa. 18. Oihuka. 20. Ibaiak, lakuak eta itsasoa betetzen dituen likidua. 21. Royal Air Force. 22. (Ald.) Uhin.

Bertikalak 1. Iraupen laburra duena, azkar desagertzen dena. 2. Musulmanek jainkoari emandako izena. 3. Utzi. 4. Urteko zortzigarren hilabetea. 5. Kobaltoa. 6. Dirua, denbora eta abar gauza hutsaletan gastatu. 7. Odo la duena. 8. Dozenerdi. 13. Klera. 15. Gipuzkoako udalerrria. 17. Sasoi, garai. 19. *Haifako* kontsonanteak.

Horizontalak: 1. Palacios. 9. Alabarde. 10. Sagru. 11. Ioi. 12. (Ald.) Lotza. 14. Ka. 16. Tinda. 18. Oihuz. 20. Ur. 21. RAF. 22. (Ald.) Onda.
 Bertikalak: 1. Pasakor. 2. Ala. 3. Laga. 4. Abuztu. 5. Co. 6. Iton. 7. Odoldun. 8. Set. 13. Tiza. 15. Ala. 17. Aro. 19. HF.



eta orain
BERGARAN



Deba Garaian banatzaile bakarra

BOLINTXO
K I R O L A K

% 15ko eskaintza berezia zapatilatan

Ibargarai, 10 • BERGARA • Tel.:76 38 32

Kukaratxa Motel modu berezian agurtuko da

Aurreko astean Santa Kuka eguneko finala jokatu ondoren, Kukaratzak agur esango du. Denboraldiko azken programa ez da nola nahikoa izango. Zuzeneko emisioan, urtean zehar gertatutako gauza ikusgarrien errepasoa ikusi ahal izango da.

Sorpresa batzuk aurreratu dizkigu Unai Torresek, Kukaratxa Moteleko gerenteak. Horien artean, parrokian grabatutako spota eta "Motelak" telekomedia nola egin zen ezagutzeko aukera izango da. Platoko gertakizun barregarriak, eta programako talde teknikoari eginiko elkarrizketak egongo dira. Behar bezalako agurra izan dadin, lehiaketa telefoniko baten bidez, Milar Elkorok eskainitako Game-Boy bideo kontsolak banatuko dira ikusleentzako. Ez ahaztu zita: datorren ostegunean, gaueko 9:30etan.



Esti Loitik eta Itxaro Zubillagak finalistekin berba egingo dute zuzenean.

Mondrasport berezia astelehenean 9.30etan

Zaldibar txapelketari buruzko Mondrasport berezia izango da astelehenean gaueko 9.30etan. Zuzenean finalera heldu diren Sortu informatika eta Orlando Piratas taldeetako jokalariek izango dira, antolakuntzako ordezkari batekin batera. Kirol saioaren bukaeran

Arrasate Kirolak Lehiaketa zozketa egingo da. Parte hartu eta erantzuna asmatutako bi lagunek kirol arropa sorta ederra jasotzeko aukera izango dute. Zaldibar Txapelketaz gain, beste kirol batzuetako laburpena egingo da: atletismoa eta nesken txapelketa.

Munduari bueltaka: Malira azken saioan

Asteazkenekoa izango da Munduari Bultaka saioaren azken programa.

Asteazkenean Maliko irudiak izango dira ikusgai, eta berbetan Eneka Aranzabal arituko da. Orain arte gonbidatu izandakoek diapositibak ekarri badituzte ere, azken saioan bideokamarekin joan ziren Malira orain dela hiru urte, eta ondoren muntaia bat egin zuten. Muntaia horrekin hainbat sari eskuratu dute Enekek eta bere kideek.

Bestalde, asteazkenean Teneriferako bidaiak zozketatuko da, eta irabazlearekin zuzenean telefonoz harremanetan jartzeko ahalegina egingo da. Beraz, etxean egon asteazkenean gaueko 9.30etatik aurrera, eta telefonoa geratu eduki!

■ ATBko asteko programazioa

13 Ostirala	16 Astelehena	17 Asteartea	18 Asteazkena	19 Osteguna	20 Ostirala
20/20.30/21.00 Berriak	13.30 Astebete (Errep.)	13.30 Mondrasport (Errep.)	13.30 Burua Astinduz (Errep.)	13.30 Munduari Bultaka (Errep.)	13.30 Kukaratxa Motel (Errep.)
21.30 Astebete.	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak	20/20.30/21.00 Berriak
	21.30 Mondrasport: Zaldibar txapelketa saio berezia.	21.30 Burua Astinduz.	21.00 Munduari Bultaka. Mali. Eneka Aranzabal.	21.30 Kukaratxa Motel. Finala zuzenean.	21.30 Astebete

Ekainak 28, Gay eta Lesbianen Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

17an HITZALDIA

Nola onartu zure inguruko norbait lesbiana edo gay dela?

Emaleak: Aldarte kolektiboa • Monterronen, arratsaldeko 7etan

19an ZINE EMANALDIA

MIDNIGH DANCER

Amaia antzokian, gaueko 9.30etan

UZTAILAREN 4an ANTZERKIA

"LA MATANZA". Antzezleak: Gaztegay

Amaia antzokian, gaueko 10.30etan



Sexualitate Bulegoa ■

ARRASATEKO UDALA

Peugeot 406
Turbo Diesel
bat daukazu*
2.445.000 pta.tik



Zaldispe, 2 • ARRASATE
(Ospital ondoan)
Tel.: 79 50 71

EKOMOBIL



PEUGEOT

*BEZa, garraioa, Prever programaren araberako matrikulazioa zerga eta promozioa barne.

Olanorekin eta Mugarriekin edonora!



Tour-ean ere onenekin batera ibiliko gara!

MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44-54 • Faxes: 79 62 54

